# ORENDAINGO AA.SS.en ALDAKETA PUNTUALA, LURZORU URBANIZAEZINEAN KOKATUTAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO USTIAPENEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ALDATZEN DITUENA.

# ORENDAIN

**SUSTATZAILEA**

ORENDAINGO UDALA

**EGILEA**

NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS
Arkitektoa

2019ko AZAROA

**AURKIBIDEA**


1- SARRERA. AURREKARIAK .......... 4
2- HIRIGINTZA INFORMAZIOA. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA .......... 5
3.- AA.SS.en ALDAKETAREN KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA .......... 5
4.- PROPOSATUTAKO ALDAKETEN HELBURUAK ETA EDUKIA .......... 8
5.- UDALAZ GAINEKO PLANGINTZARI EGOKITZAPENA .......... 10
6.- INGURUMEN-TXOSTEN ESTRATEGIKOA REN ESKAKIZUNEN JUSTIFIKAZIOA .......... 12
7.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENAREN BEHARREZKOTASUN EZAREN JUSTIFIKAZIOA. .......... 13
8.- AA.SS-en ALDAKETA PUNTUALAREN ERAGINAREN EBALUAZIOA UDALERRIKO EGOERA SOLIOLINGUISTIKOAN .......... 14
9.- BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA. EKONOMIAREN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA .......... 14
10.-ALDAKETAK JASATEN DITUZTEN ARTIKULUEN ZERRENDA .......... 16

**1. ERANSKINA: INDARREAN DAGOEN DOKUMENTAZIOA .......... 17**

11. artikulua. Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera. .......... 18
55. artikulua. Lursailen gutxieneko erabilerarako neurriak. .......... 18
60. artikulua. Bestelako orotariko xedapenak. .......... 19
66. artikulua. Nekazaritza ustiapena: Definizioa. .......... 19
67. artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea. .......... 20
69. artikulua. Baserri berrien eraikuntza. .......... 21
71. artikulua. Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapena trinkoak .......... 22
80. artikulua. .......... 23

*Artículo 11. Régimen general de edificación y uso aplicable a las distintas zonas de uso global. .......... 24*
*Artículo 55. Parcelas mínimas de uso. .......... 24*
*Artículo 60. Otras disposiciones de carácter general. .......... 25*
*Artículo 66. Explotación agraria: Definición. .......... 25*
*Artículo 67. Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes. .......... 26*
*Artículo 69. Construcción de nuevos caseríos. .......... 27*
*Artículo 71. Granjas y explotaciones ganaderas intensivas. .......... 28*
*Artículo 80. .......... 29*

**2. ERANSKINA: ALDATUTAKO DOKUMENTAZIOA .......... 30**

11. artikulua. Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera. .......... 31
55. artikulua. Lursailen gutxieneko erabilerarako neurriak. .......... 32
60. artikulua. Bestelako orotariko xedapenak. .......... 32

66. artikulua. Nekazaritza ustiapena: Definizioa. ....33
67. artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea. ....33
69. artikulua. Baserri berrien eraikuntza. ....34
71. artikulua. Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapena trinkoak....35
80. artikulua. ....37

*Artículo 11. Régimen general de edificación y uso aplicable a las distintas zonas de uso global. .... 38*
*Artículo 55. Parcelas mínimas de uso. .... 39*
*Artículo 60. Otras disposiciones de carácter general. .... 39*
*Artículo 66. Explotación agraria: Definición. .... 40*
*Artículo 67. Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes. .... 41*
*Artículo 69. Construcción de nuevos caseríos. .... 42*
*Artículo 71. Granjas y explotaciones ganaderas intensivas. .... 43*
*Artículo 80. .... 44*

## 0.-IDAZLE TALDEA

Lan honen idazketan jarraian zerrendatzen diren teknikariek parte hartu dute:

- Hirigintza dokumentua:

- Nikolas Barandiaran Contreras.......Arkitektoa.

- Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa:

ekolur
Asesoria Ambiental • Ingurumen Aholkularitza

- Tomas Aranburu Calafel: .......Nekazaritza ingeniari teknikoa.
- Leire Paz Leiza: .......Biologian Lizentziatua.
- Alexandra Egunez Zalakain ....... Biologian Graduatua.

## 1- SARRERA. AURREKARIAK

Jarraian garatzen den Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Orendaingo Udalak sustatzen du eta aipatu berri den idazle taldeari esleitua izan da, egungo hirigintza araudian zehazten diren Lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek bete beharreko hainbat baldintza egokitzeko asmoz.

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoari (IEE) dagokionean, gai honi buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera (3/1998 legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra; 211/2012 dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, eta 21/2013 legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa), proposatzen diren aldaketek ingurumenaren gaineko ondorio adierazgarririk ez dutela eragiten kontsideratzen da. Ondorioz, dokumentuak ez du, hasiera batean behintzat, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura jarraitu behar

Hala ere, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluko 2.a) puntuan ezartzen den moduan, plan baten aldaketa txikia izango litzateke, Orendaingo Arau Subsidiarioena; ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoari lotua dagoena. Ondorioz, Orendaingo Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozesua jarraitu beharko du.

Are gehiago, Orendaingo Udalak, Organo sustatzaileak, arau aldaketa honek ingurumen-ebaluazio estrategikoa igaro behar ote duen kontsulta egin zion Ingurumen-organoari (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia). Zuzendaritza honek ondorioztatu zuen ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraitu behar zuela , aipatutako abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.a) edo 6.2.c) artikuluen arabera.

Horrenbestez, Orendaingo Udalak 2019ko uztailen Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoaren hasiera eskatu zion ingurumen arloko organoari (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua). Eskabidearekin batera, Ingurumen-Agiri Estrategikoa (Ekolur Asesoría Ambiental-ek idatzia) eta AASSen Aldaketaren zirriborroa (honako dokumentu hau sinatzen duen teknikariak idatzia) erantsi ziren.

2019ko urriaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiak dagokion Ingurumen Txosten Estrategikoa eman zuen (GAO, 2019/10/29an). Bertan ebazten da Orendaingo Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala ez eramatea ingurumen ebaluazio estrategiko arruntera, ondorioztatzen baita ez duela eragin negatibo adierazgarririk izango ingurumenean, betiere, Txosten horretan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako zuzendaritzako Lurralde Plangintzako Zerbitzuak 2019ko Irailaren 24an sinatutako txostena igorri zion Udalari, Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoaren barruan, Ingurumen Organoak egindako kontsultari erantzuten diona. Txosten horretan adierazten da, besteak beste, okupazio maila batetik aurrerako ustiategiei Plan Berezi bat idazteko eta onartzeko eskakizuna egitearen egokitasuna.

## 2- HIRIGINTZA INFORMAZIOA. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA

Indarrean dagoen Orendaingo Arau Subsidiarioen Testu Bateratua 2003ko urtarrilaren 14ko Osoko Bilkurak behin-behingoz onartu zuen, 2003ko Uztailaren 29an Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu zuelarik (GAO 2013/10/16).

2007ko azaroaren 13an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak "Orendaingo Eskolapioak-1 6. jarduera unitateari eta G.10 gizarte ekipamendu sistema orokorrari dagokien AA.SS.-en Aldaketa" behin betiko onartu zuen (GAO 2007/11/23).

Azkenik, 2016ko maiatzaren 10ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu zuen "Orendaingo Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, hiri lurzoru finkatuan dauden zenbait eraikinetan ahalbidetutako gehienezko etxebizitza kopuruari buruzkoa" (GAO 2016/05/25).

## 3.-AA.SS.en ALDAKETAREN KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Duela urte gutxi arte Orendaingo biztanleriaren gehiengoak lehen sektorean egiten zuen lan. Azken hamarkadetan, ordea, kopuru hori asko jaitsi da, eta gaur egun gutxi dira jarduera horietan diharduten herritarrak. Horren arrazoi nagusia, jarduera horietatik bizimodua ateratzeko dauden zailtasunak dira, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak nozitu duen etekinen beherakada nabarmena dela eta.

Geratzen diren ustiapenek, etekin baxu horiek tarteko, beren errentagarritasuna eta lehiakortasuna bermatu ahal izateko, tamaina handitzera jo behar izan dute, baliabideak optimizatuz.

Handitze horretan eragin nabarmena izan dute, baita ere, azken urteetan onartu izan diren arau sektorial ugariek (ingurumena babestekoak, lurraldearen antolamenduari dagozkionak, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenei dagokionean ...). Ingurugiroa babesteko eta Animalien eta langileen osasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko jorratu den araudi corpus horrek, guztiak, instalazio eta makinaria gehiago eta handiagoak behar izatera eraman ditu abeltzainak.

Bilakaera horrek, ordea, talka egiten du gaur egungo Orendaingo araudi urbanistikoak ezartzen dituen mugekin (ustiapenen tamainari batez ere, baina baita kokapenari dagozkionak), zeinak motz geratzen diren ustiapen moderno eta errentagarriak garatu ahal izateko.

Kontuan izan behar da, duela hamarkada t´erdi pasa, indarrean dauden AA.SS.ak onartu zirenerako, Orendaingo udalerrian kokatutako abeltzaintza ustiapen nagusienetako bik (Larraspi eta Orbelo) Arauek ezartzen duten gehienezko 1.500m$^2$-ko okupazioaren mugan zeudela edo hura gainditua zutela dagoeneko.

Gaur egun, badira beste zenbait ustiapen gehienezko muga hori gainditua dutenak (Larreta, J.A. GArmendia y Otros), edo muga horretan dabiltzanak (Olaso).

Horretaz gain, aipatzekoa da, Orendaingo zenbait ustiapen garrantzitsu (Larraspi eta J.A. Garmendia y Otros besteak beste) "D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko gune" bezala kalifikatutako lurretan kokatuta daudela, non egungo AA.SS-ek eraikin berriak eraikitzea galarazten dute.

Bereziki nabarmena da Orendainen dagoen ustiapen nagusiaren, Larraspiren egoera; bere egungo 5.800 m$^2$ko okupazioarekin eta D.20 Landa Paisajistiko Babesa bezala kalifikatutako kokapenarekin.

Aipatu diren ustiapen horiek guztiek Udalerriko (eta eskualdeko) lehen sektorearen garapenean berebiziko garrantzia dute eta beraien bideragarritasuna bermatzea lehentasuna du Udalarentzat.

Ondoren agertzen den taulan, Orendaingo Udalerriko ustiapenak zerrendatzen dira, beren ustiapen datuekin (laboreak eta abelburuak).

Horrekin batera, beraien kokapenari dagokion Hirigintza mailako kalifikazioa (AA.SS.)eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-aren araberako kategoria adierazten dira (produkzio minimo batetik gorako ustiapenei dagokiona); baita aurretik aipatu diren ustiapen nagusi horien gaur egungo eraikuntzaren gutxi gorabeherako okupazioak adierazten dira.

Azkenik, bakoitzari dagozkion gaur egungo Azienda Larri Unitateen (A.L.U.) arabera, ustiapenaren eraikigarritasun beharren hipotesiak aurkezten dira, ohikoak diren zenbait ratio aplikatuz abelburu mota bakoitzari.

Taulako datuek, aurretik aipatutako kokapenari eta tamainari dagozkion arazoak argi agertzen dituzte. Kontuan izan behar da horietako hainbat ustiapenek, gaur egun duten eraikigarritasuna ez zaiela nahikoa duten azienda unitateentzat; are gehiago, zenbaitek, azienda kopuru hori handitzeko beharra dutela beraien errentagarritasuna mantentzeko, horri dagokion eraikigarritasunaren handitzearekin.

| USTIATEGIA | ORENDAINGO AASS | | | | NEKAZARITZA ETA BASOIZAINTZAKO LPS | | | EGUNGO OKUPAZ. (+-) | LABOREAK (Ha) | | | | | | | | ABELBURUAK | | | | | | ERAIKIGARRITASUN BEHARREN HIPOTESIA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | D.10 L.Z. ARRUNTA | D.20 LANDA-PAISAJISTIKO BABESA | D.30 AZALEKO UREN BABESA | HIRI LURZORUA | NEK-ABEL balio estrategiko altua | NEK-ABEL trantsiziozko landa paisaia | MENDIA basoa | M2 | Bazkak | Barazkiak | Fruta-arbolak | Besteak | Basoak | Sastraka eta Ez-emankorrak | Ha | M2 | Behi-aziendak | Ardi-aziendak | Ahuntz-aziendak | Zaldi-aziendak | U.L.U.* | azienda larri unitateak (A.L.U.) | 1 ALU 20M2 | behi-ustiapena kubikulutan 18,4m2/behi | behi ustiapena ohe beroa 23,8m2/behi | ardi ustiapena haragitarako 1,914m2/ardi | ardi ustiapena arkumeak gizentzeko 2,914m2/ardi | denera (ohe beroa+arkumeak gizentzeko) |
| LARRASPI | | | | | | | | 5.800 | 65,5616 | 0,0986 | 0,7987 | 0 | 8,8557 | 3,0779 | 78,39 | 783.925 | 259 | 12 | 18 | 9 | 4,996 | 267 | 5332 | 4766 | 6164 | 23 | 35 | 6199 |
| URKI | | | | | | | | | 0,77 | 0 | 0 | 0 | 15,87 | 0 | 16,64 | 166.400 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0,214 | 1 | 11 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| OLASO | | | | | | | | 1.150 | 5,6648 | 0,0708 | 0,1846 | 0,2059 | 41,5198 | 0 | 47,65 | 476.459 | 9 | 19 | 0 | 0 | 1,152 | 10 | 207 | 166 | 214 | 36 | 55 | 270 |
| URKOLA-GOIKOA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZUBELTZU (HONUZKOA) | | | | | | | | | 5,8898 | 0 | 0,162 | 0 | 8,1441 | 0 | 14,20 | 141.959 | 6 | 0 | 0 | 0 | 0,296 | 6 | 120 | 110 | 143 | 0 | 0 | 143 |
| JAUREGI | | | | | | | | | 0,09 | 0 | 0 | 0 | 7,65 | 0 | 7,74 | 77.400 | 3 | 0 | 6 | 0 | 0,131 | 4 | 71 | 55 | 71 | 0 | 0 | 71 |
| ZAIN-GOIKOA | | | | | | | | | 1,6643 | 0,1035 | 0,1555 | 0 | 4,7995 | 0 | 6,72 | 67.228 | 0 | 8 | 0 | 0 | 0,327 | 1 | 11 | 0 | 0 | 15 | 23 | 23 |
| LARRETA (APALATEGI) | | | | | | | | | 5,375 | 0,0528 | 0,1279 | 0 | 2,0185 | 0 | 7,57 | 75.742 | 19 | 17 | 0 | 3 | 0,519 | 22 | 438 | 350 | 452 | 33 | 50 | 502 |
| GARMENDI | | | | | | | | | 4,9528 | 0 | 0,9357 | 0 | 7,7618 | 0 | 13,65 | 136.503 | 0 | 8 | 0 | 2 | 0,338 | 2 | 34 | 0 | 0 | 15 | 23 | 23 |
| LARRETA (E.Z.) | | | | | | | | 1.730 | 22,9143 | 0,1491 | 0,2412 | 0,0137 | 4,9342 | 0 | 28,25 | 282.525 | 64 | 0 | 0 | 0 | 2,143 | 64 | 1280 | 1178 | 1523 | 0 | 0 | 1523 |
| ORBELO | | | | | | | | 1.637 | 31,5786 | 0,2004 | 0,0609 | 0 | 9,1191 | 0 | 40,96 | 409.590 | 141 | 0 | 0 | 0 | 3,125 | 141 | 2820 | 2594 | 3356 | 0 | 0 | 3356 |
| LARRETA-AUNDI (KONDE) | | | | | | | | | 0,21 | 0,02 | 0,07 | 0,08 | 1,27 | 0 | 1,65 | 16.500 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,096 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IRIARTE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 3,41 | 0,19 | 3,60 | 36.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,045 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LUGARRAGA | | | | | | | | | 7,8013 | 0,1664 | 0,4099 | 0 | 12,145 | 0 | 20,52 | 205.226 | 10 | 14 | 3 | 0 | 0,844 | 11 | 225 | 184 | 238 | 27 | 41 | 279 |
| ZELAIETA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 8,05 | 0 | 8,05 | 80.500 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,108 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| HIRUMENDI | | | | | | | | | 7,9506 | 0,1117 | 0,3201 | 0 | 4,1219 | 0 | 12,50 | 125.043 | 13 | 0 | 0 | 0 | 0,671 | 13 | 260 | 239 | 309 | 0 | 0 | 309 |
| ABALI-GOENA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0,09 | 0 | 0 | 0,09 | 900 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,047 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZUBELTZU-AUZKOA | | | | | | | | | 1,91 | 0 | 0 | 0 | 10,16 | 0 | 12,07 | 120.700 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0,188 | 1 | 23 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BENTA | | | | | | | | | 13,5429 | 0,0139 | 0,6871 | 0,1028 | 7,2588 | 0 | 21,61 | 216.055 | 4 | 105 | 6 | 6 | 0,634 | 15 | 306 | 74 | 95 | 201 | 306 | 401 |
| ERROTA-ETXEBERRI | | | | | | | | | 4,8542 | 0 | 0 | 0 | 17,2115 | 0 | 22,07 | 220.657 | 0 | 21 | 0 | 0 | 0,374 | 1 | 29 | 0 | 0 | 40 | 61 | 61 |
| BALIARRAINGO ERROTA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ORENDAINGO ERROTA | | | | | | | | | 0,06 | 0 | 0 | 0,26 | 3,7 | 0 | 4,02 | 40.200 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,119 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| JAUN DONOSTI | | | | | | | | | 0,32 | 0,01 | 0,99 | 0 | 2,02 | 0 | 3,34 | 33.400 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,201 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LIZARRIBAR | | | | | | | | | 16,7978 | 0 | 0,3417 | 0 | 5,7523 | 0 | 22,89 | 228.918 | 0 | 272 | 0 | 17 | 0,874 | 29 | 575 | 0 | 0 | 521 | 793 | 793 |
| ABALI-HAUNDI | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 18,4754 | 0 | 18,48 | 184.754 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,274 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZAIN-AZPI | | | | | | | | | 1,76 | 0 | 0 | 0 | 3,25 | 0,39 | 5,40 | 54.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,067 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ZARAGOZA | | | | | | | | | 1,1192 | 0 | 0,4279 | 0 | 5,9875 | 0 | 7,53 | 75.346 | 0 | 18 | 8 | 0 | 0,193 | 2 | 40 | 0 | 0 | 34 | 52 | 52 |
| KALE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BIDE-ARTE | | | | | | | | | 0,54 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,54 | 5.400 | 0 | 0 | 0 | 3 | 0,077 | 2 | 34 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| TXARA-ZAHAR | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 5,5209 | 0,01 | 5,53 | 55.309 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,075 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| IRAZUSTA | | | | | | | | | 0,5234 | 0 | 0 | 0 | 4,58 | 0 | 5,10 | 51.034 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0,078 | 1 | 11 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ESKOLAPIOAK | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 8,15 | 0 | 8,15 | 81.500 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,130 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LARRETA (OTAMENDI) | | | | | | | | | 0,06 | 0,06 | 0 | 0 | 2,49 | 0 | 2,61 | 26.100 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,159 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| OKAITZ-GARRO (GOIKOA) | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 2,91 | 0 | 2,91 | 29.100 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,047 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BASOBARRENA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,43 | 0 | 0,43 | 4.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,007 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| OKAITZ-GARRO | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ERROTAALDEA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| JA. GARMENDIA Y OTROS,S.C. | | | | | | | | 2.090 | 113,761 | 0,0669 | 0,3491 | 0,0304 | 8,0634 | 0 | 122,27 | 1.222.708 | 19 | 922 | 0 | 12 | 2,760 | 90 | 1808 | 350 | 452 | 1765 | 2687 | 3139 |
| ORMAIN | | | | | | | | | 0,89 | 0 | 0 | 0 | 6,36 | 0 | 7,25 | 72.500 | 0 | 19 | 0 | 1 | 0,120 | 2 | 38 | 0 | 0 | 36 | 55 | 55 |
| GOROSTEGI | | | | | | | | | 2,3122 | 0 | 0 | 0 | 15,5235 | 0 | 17,84 | 178.357 | 0 | 32 | 0 | 0 | 0,330 | 2 | 45 | 0 | 0 | 61 | 93 | 93 |
| LARRAIN | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0,33 | 0 | 0 | 0,33 | 3.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,165 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GALARDI | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,78 | 0 | 0,78 | 7.800 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,013 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| EGUZKI | | | | | | | | | 0,85 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,85 | 8.500 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,035 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LAKIOLA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 19 | 0 | 0 | 0,032 | 1 | 27 | 0 | 0 | 36 | 55 | 55 |
| LARGARATE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| URKOLAMENDI | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,8 | 0 | 0,80 | 8.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,012 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ITURRALDE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,93 | 0 | 1,93 | 19.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,026 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LARRASTEGI | | | | | | | | | 0,2254 | 0 | 0 | 0 | 6,5439 | 0 | 6,77 | 67.693 | 8 | 0 | 0 | 0 | 0,166 | 8 | 160 | 147 | 190 | 0 | 0 | 190 |
| EGUZKITZA | | | | | | | | | 0,15 | 0 | 0,14 | 0 | 0 | 0 | 0,29 | 2.900 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,015 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ORREAGA | | | | | | | | | 0,06 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,06 | 600 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0,014 | 1 | 11 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| APELU BEHEKOA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,49 | 0 | 1,49 | 14.900 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,024 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| INZELAI | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,23 | 0 | 1,23 | 12.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,019 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| AGERRE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 2,7453 | 0 | 2,75 | 27.453 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,097 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| AGERRE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| ARRUE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,008 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| SORO LUZE | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0,43 | 0 | 0 | 0,43 | 4.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,215 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| HAIZEA | | | | | | | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0,002 | 0 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| KALE | | | | | | | | | 1,47 | 0 | 0 | 0 | 5,86 | 0 | 7,33 | 73.300 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,094 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BELARDI HAUNDIA | | | | | | | | | 0,39 | 0 | 0 | 0 | 8,86 | 0,04 | 9,29 | 92.900 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,129 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

(*) U.L.U. Kop. = Nekazaritza-lan Unitate Kopurua (1 U.L.U. = Urtean 1.920 lan-ordu sartzen dituzte titularrak eta bere familiak

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia     Orendaingo Nekazaritza Ustiategiak. 2018 kanpaina.

AA.SS-en indarraldian zehar, aipatutako ustiapen horiek eta beste hainbat ustiapenek zituzten beharrizanei erantzuteko beharrezko zituzten hainbat "handitze" lan ahalbidetu ditu Udalak. Horiei, eta etor daitezkeenei hirigintza aldetiko sostengu legala ematera dator honako Arau Subsidiarioak Aldatzeko dokumentua.

## 4.- PROPOSATUTAKO ALDAKETEN HELBURUAK ETA EDUKIA

Nekazaritza eta Abeltzaintza sektore eraginkor bat izateak Ingurumenean orokorrean eta Orendaingo herrian zehazkiago ekartzen dituen onurak kontuan hartuta, honako hauek izango lirateke AA.SS.en aldaketa puntual honen helburu orokorrak:

- Orendaingo landa inguruaren biziraupena eta gizarte-dinamismoa bultzatuko duen biztanleria egonkor eta gaztea (ahal den neurrian) erakartzea.

- Orendaingo landa inguruaren ustiapen jasangarria bultzatzea (ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokionean).

Hori lortzeko, Arau Subsidiarioen Aldaketa honen helburu nagusia da, egungo beharrizanetara egokitzea egungo udal hirigintza-araudiak lurzoru urbanizaezinean kokatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei ezartzen dizkien hainbat baldintza edo muga. Horrela egungo ustiapenen eta sor daitezkeenen etorkizuna bermatzeko beharrezko diren eskakizunei erantzuna emateko hirigintza araudia izatea ahalbidetuz.

Nagusiki, baldintza horiek ustiapenaren tamainarekin eta berau kokatzen den lursailarekin lotuta daude.

Horrela, tamainari dagokionez, gaur egungo arauen arabera, <u>landetxe eta abeltzaintzako ustiapen trinkoei buruzko 71. artikuluar</u>en arabera, ustiapen batek izan dezakeen eraikinaren gehienezko okupazio azalera 1.000m$^2$ -pertsona bakarrekoek- eta 1.500m$^2$ -kooperatibek- izango litzateke. Azalera horiek murritzegiak gertatzen dira egungo ustiapen moderno eta jasangarri baten funtzionamendu egoki baterako. Horrela egiaztatu ahal izan da inguruko nekazari eta abeltzainekin izandako hartu-emanetan eta baita inguruko herrietako udal araudiak aztertuta.

Hori horrela, muga hori 8.000 m$^2$-raino zabaltzea aurreikusten da, betiere, ustiapena sustengatzen duen lursailaren tamainaren arabera azalera hori egokituz. Hala ere, ingurumenean eta paisaian eragin ditzaketen inpaktu kaltegarriak ekiditeko, 2.500 m$^2$ baino gehiagoko okupazioa proposatzen duten ustiapen trinkoen kasuan, aurretik Plan Berezi bat idatzi eta onartzea eskatuko da.

Bestetik, aurretiazko baldintza gisa, AA.SS.-en ondoren onartutako Nekazaritza eta Basogintzako LPS-ko baldintzak betetzearen inguruko aipamena txertatzen da.

Gainera, 71. artikulu horretako a) atalean aipatzen den gutxieneko lursaila indarrean dagoen legerian xedatutakoari lotzea egoki kontsideratu da. Horrekin lotuta, eta indarrean dagoen legeriari jarraituz ere, eraikina beregan jasoko duen lursailaren gutxieneko tamaina laborantzako unitate minimo gisa finkatutakoa izango dela zehazten da (1Ha.)
Azkenik, Arau Subsidiarioak indarrean izan diren urte hauetan ustiapenetan txertatu diren produkzio sistemek eta eskakizun higieniko-sanitario handiagoek, artikulu honetako e) eta f) atalek mugatzen duten gehienezko profil eta altuerak egokitzera behartzen dute.

Artikulu honetan gutxieneko lursailen tamainan txertatutako aldaketen eraginez, 55. Artikulua. Lursailen gutxieneko erabilerarako neurriak egokitu egin da.

Kokapenari dagokionez, egungo Arau Subsidiarioetako 11. artikuluak, eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera arautzen duenak, "11.2.D. Landa Guneak - D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak" deiturikoetan debekatu egiten du eraikin berririk gauzatu ahal izatea.

Aurretik esan den bezala, gaur egun, jada, Orendaingo zenbait ustiapen garrantzitsu "D.20 Nekazaritza eta paisajea babesteko gune" horietan kokatuta daude. Hori horrela, salbuespen gisa bada ere, beharrezko ikusten da gaur egun gune mota horretan kokatutako nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen horien biziraupena bermatuko duten beharrezko handitze lanak baimentzea; eta hortaz, 11. artikulu hori moldatzea. Betiere, argi edukita nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen jasangarri eta bideragarriak izatea dela nekazaritza eta paisaia aldetik balio handia duten gune horiek babesteko berme nagusia.

Kasu honetan, kontuan hartzen da Arau Subsidiarioetako D.20 guneak udal-mailaz gaineko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak Balio Estrategiko Altuko Nekazaritza-abeltzaintza eremu bezala sailkatutako guneekin bat datozela neurri handi batean. Hori horrela, L.P.S.-ko araudiko 62. artikuluari erantzunez, beharrezkoa izango da, gune horietan burutu nahi diren handitze lanak baimentzeko, dagokion "Nekazaritza eta Basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa" egitea.

.Honen harira, gune horietan salbuespen gisa onartzen diren eraikinen erabilera eta eraikuntza erregimena D.10 Ororen Landa Guneetako eraikinei ezartzen zaizkienari parekatzeko 80. Artikulua ere egokitzen da. Paisaiaren ikuspegitik sentsibleak diren ingurunetan eragin ditzaketen inpaktu kaltegarriak ekiditeko, berriz, horrelako guneetan kokatzen diren proiektuentzat 90/2014 Dekretuan aurreikusitako paisaia integraziorako azterlanaren eskakizuna gaineratzen zaio artikulu honi.

Azkenik, Arau Aldaketaren helburu diren Abeltzaintza eta Nekazaritza ustiapenekin duten lotura kontuan hartuta, dokumentu honen izapidetzea aprobetxatzen da araudian honako egokitzapenak edo zehaztapenak txertatzeko:

- 60. artikulua. Bestelako orotariko xedapenak: Arau Aldaketa honen Ingurumen-txosten estrategikoaren eskakizunei erantzunez, Ingurumen-Agiri Estrategikoaren 10. Atalean proposatutako neurri prebentibo, zuzenetzaile eta konpentsatzaileak betetzeko beharra eta EAEko korridore ekologikoen konektibitatean trabarik ez eragiteko baldintza txertatzen dira.

- 66. artikulua. Nekazaritza Ustiapena: Definizioa: Egungo Arauetako artikulu honetan aipatzen den araudia, eta araudi horretatik eratorritako nekazaritza ustiapena kontzeptuaren definizioa eguneratzen da.

- 67. Artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea: Kontuan izanda egungo gizartearen bizitza modu eta eredu ezberdinak, gehiegizkotzat kontsideratzen da baserri bakoitzaren barne banaketaren ondorioz sortutako etxebizitza bakoitzak gutxienez 150 $m^2$-ko azalera izateko eskakizuna. Hala ere, gehiegizko banaketa ekidin asmoz, 150$m^2$-ko gutxienezko azalera, baserriko etxebizitza guztien batez bestekoari aplikatzea proposatzen da.

- 69. Artikulua. Baserri berrien eraikuntza: Laborantza ustiapen berriak eraikitzeko gaur egun eskatzen den gutxienezko 5 Ha.-ko lursaila gehiegizko kontsideratzen da. Are gehiago Orendain bezalako udalerri txiki batean. Hori dela eta, gaiaren inguruan indarrean dagoen legediak, "168/1997 DEKRETUAk, uztailaren 8koak, Euskal Autonomi Elkarteko lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituenak" dioena jarraituz, gutxieneko lursaila 1 Ha.-ra jaistea proposatzen da.

Hala ere, EAE-ko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ko 11. Artikulua betetzeko, eraikina duen lursail jarraituaren gutxieneko azalera, 3.000tik 10.000$m^2$-ra igotzea proposatzen da.

## 5.-UDALAZ GAINEKO PLANGINTZARI EGOKITZAPENA

Orendaingo Arau Subsidiarioen aldaketarako dokumentu honengan eragina duten udalaz gaineko plangintza dokumentu nagusiak honakoak dira:

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

*(128/2019 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, behin betiko onartu zituena)*

Aipatutako dokumentua kontuan hartu da honako AA.SS.aldaketa dokumentu honetan. Zehazki, dokumentu honen proposamenek bat egiten dute LAG-ek bultzatzen duten nekazaritza eta abeltzaintza

jardueren intentsitate eta kalitatea handitzeko helburuekin; eta bat datoz antolamendu-kategoria bakoitzari dagozkion erabileren eta jardueren matrizearekin (3. Artikulua)

- EAE-ko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala (LPS)

*(177/2014 Dekretuak, 2014ko irailaren 16koak, behin betiko onartu zuena)*

Orendaingo nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen gehienak LPS-ak Nekazaritza-abeltzaintza eremu bezala kategorizatutako lurretan kokatuta daude; Balio estrategiko Altua eta Trantsiziozko Landa Paisaia bezala zehaztutakoetan hain zuzen ere. LPS-ko araudiko 48. Artikuluak ezartzen du antolamendu kategoria horri dagokion araudia

28 eta 29. Artikuluek, berriz, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak erregulatzen dituzte.

Azkenik, 61 eta 62. Artikuluetan, antolamendu-kategoria bakoitzari dagozkion erabileren eta jardueren matrizea deskribatzen dute, lurraldean izan daitezkeen erabilerak zerrendatzen dituena.

Horren arabera, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenekin zerikusia duten eraikinak ezarri ahal izango dira Nekazaritza nahiz Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa bezala izendatutako lurretan, betiere, aurretik nekazaritza jardueran izandako eraginaren azterketa egin eta dagozkion neurri zuzentzaileak jasotzeko baldintzarekin.

Horretaz gain, Arau Aldaketa honetan, AA.SS-en ondoren onartutako LPS-honi egokitzeko asmoz, hainbat xedapen aldatu dira (eraikina jasotzen duen lursailen gutxieneko azalera, Landetxeek eta abeltzaintzako ustiapen trinkoek bete beharreko baldintzak).

- Tolosaldeko eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana (LZP)

*(2017ko Uztailaren 18ko akordioa, Behin Behineko onarpenerako dokumentua onartzen duena)*

Nahiz eta aipatutako dokumentua indarrean ez egon oraindik, kontuan hartu da. Bertan agertzen den Ingurune Fisikoaren kategorizazioa bat dator Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-ak ezarritakoarekin.

Dokumentu honetan proposatzen diren aldaketak bat datoz LZP-ak proposatutako lurralde-ereduarekin.

## 6.- INGURUMEN-TXOSTEN ESTRATEGIKOA REN ESKAKIZUNEN JUSTIFIKAZIOA

2019ko urriaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiak dagokion Ingurumen Txosten Estrategikoa eman zuen (GAO, 2019/10/29an). Bertan ebazten da Orendaingo Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala ez eramatea ingurumen ebaluazio estrategiko arruntera, ondorioztatzen baita ez duela eragin negatibo adierazgarririk izango ingurumenean, betiere, jarraian zerrendatzen diren baldintzak betetzen badira.

*- Arau Subsidiarioen araudian, Lur Urbanizaezinaren Hirigintza Araubidearen barnean, ingurumen agiriko 10. atalean zehaztutako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak gaineratu beharko dira.*

60. artikuluaren erredakzio berriak erantzuna ematen dio eskakizun horri, kasu bakoitzean aplikagarri diren proposatutako neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eskatuz lurzoru urbanizaezinean ezarritako erabilerei.

*- Lur Urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berrietarako eta abeltzaintza ustiapenarekin lotutako etxebizitza isolaturako eraikuntza baldintzak zehazteari dagokionez, Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoa beteko da. Abeltzaintza intentsiboko instalazioei dagokienez, 13. artikuluan ezarritakoa beteko da.*

69. eta 71. Artikuluen erredakzio berria, eraikina jasotzen duen partzelaren 10.000 m2-ko tamaina minimoarekin bat dator LPS-ko 11. 12.eta 13. Artikuluetan xedatutakoarekin.

Gainera, 71. Artikuluan, LPS-ko 13. Artikuluan ezarritakoak betetzea aurretiazko baldintza bezala ezartzen zaie abeltzaintzako ustiapen eta landetxeen eraikuntzei.

*Paisaiaren ikuspegitik sentsibleak diren ingurunetan eragiten den zonaldetan, obrako proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen antolaketan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan barneratzen den paisaia integraziorako azterlana gaineratuko du.*

Paisajea eta Nekazaritza babesteko lur hiritarrezinari dagokion 80. artikuluaren txertatutako erredakzio berriak erantzuna ematen dio eskakizun horri, baldintza hori eskatuz paisaia ikuspegitik sentsibleak diren inguruetan diharduten proiektuei.

*Eraikin eta instalazio berriak finkatzean, edo aurrez daudenak handitzen direnean, Orendaingo udal barrutian kokatutako EAEko korridore ekologikoekin lotutako konektibitate ekologikoan trabarik ez eragiteko moduan diseinatuko dira.*

60. artikuluaren erredakzio berriak erantzuna ematen dio eskakizun horri, baldintza hori eskatuz eraikin eta instalazio berriak finkatzean edo aurrez daudenak handitzen direnean.

*Arau Subsidiarioen aldaketan ezarritako xedapenetan lur urbanizaezinari dagokionez oro har eragina duten bestelako artikulu batzuetan ezarritako xedapenekin agertzen diren kontraesanak zuzendu egin beharko dira, esate baterako, 48. artikuluan ezarritako gehienezko altuera edo 55. artikuluan ezarritako gutxieneko erabilera partzelak.*

71. artikuluan proposatutako gehienezko altuerak egokitu egin dira 48. Artikuluan ezarritakoekin bat eginez. Horretaz gain, 55. Artikuluan ezarritako partzelen gutxieneko tamainak egokitu egin dira.

*Hala badagokio, eta Arau Subsidiarioen aldaketan kontuan izatea komenigarritzat jotzen baldin bada, Nekazaritza eta Basogintzako LPS planak ez du inolako debekurik ezartzen Balio Estrategiko Handiko Lurzoru kategorian eraikin berririk finkatzeari begira, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenarekin lotutako eraikuntzak onargarritzat joz.*

Planaren helburua da gaur egun jadanik D.20 Paisajea eta Nekazaritza babesteko guneetan kokatuta dauden nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan, beharrezko diren handitze lanak baimendu ahal izatea. Hala ere komenigarri kontsideratzen da gaur egungo babes maila handiagoa mantentzea kategoria honetako lurrei, bere berezko balio paisajistikoak eta agrologikoak mantentze aldera. Hori dela eta, egoki irizten zaio egungo ustiategietara mugatzea aukera hori; ustiategi berrien eraikinak D.10 Ororen Landa guneetara mugatuz.

## 7.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENAREN BEHARREZKOTASUN EZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 40/2012 ebazpenak, abuztuaren 21ekoak genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzen ditu eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen

Ebazpen honetako lehenengo jarraibideak, Generoaren Araberako Eraginaren Txostena arautzen duenak, bere 2.1.d atalak dio Xedapen orokorretarako proiektuek, hau da, lege edo erregelamendu-maila duten arau juridikoen proiektuek, aipatutako Txostena eraman beharko dutela, salbu, besteak beste, "Indarrean dauden arauak aldatzea xede dutenak, aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez.

Honako kasu honetan, eta arestian aipatu bezala, AA.SS.en Aldaketa Puntualaren helburua da indarrean dauden AA.SS-en araudi orokorraren nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiapenen inguruko artikulu zehatz batzuk egokitzea. Aldaketa horiek ez dute funtsean eraginik gizonen eta emakumeen arteko tratu eta aukera-berdintasunarekin zerikusia duten gaietan, eta, beraz, ez dute genero-arloan eragin zuzenik

Hori guztia dela eta, AA.SS.-en Aldaketak genero ikuspegitik ez duela garrantzia berezirik kontsideratzen da, eta hortaz, Generoaren Araberako Eraginari buruzko Txostena ez dela beharrezko kontsideratzen da.

## 8.- AA.SS-en ALDAKETA PUNTUALAREN ERAGINAREN EBALUAZIOA UDALERRIKO EGOERA SOLIOLINGUISTIKOAN

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez" arautzen duen 7. Artikuluko 7. Atalean honako hau dio: "Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira".

Dokumentu honek proposatutako aldaketei dagokienez, hots, nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiapenen inguruko artikulu zehatz batzuk egokitzea, udalerriaren egoera soziolinguistikoan eraginik ez dutela uste da, beraz, ez du zentzurik bere ebaluazioak.

## 9.- BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA. EKONOMIAREN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA

Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Lurzoruari eta Hiri-birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategineko 22. artikuluak Hiri-garapenaren jasangarritasunaren ebaluazioa eta jarraipena, eta hiri-ingurunearen gaineko jarduketen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren bermea. arautzen ditu.

Horren arabera Hirigintza-eraldaketako jarduketak antolatzeko tresnen dokumentazioan ekonomia jasangarritasunari buruzko txosten edo memoria bat sartu beharko da (22.4). Bestetik, Hiri-ingurunearen gaineko jarduketak, horiek hirigintza-eraldaketakoak izan edo ez, antolatu eta exekutatzeko bideragarritasun ekonomikoa (errentagarritasunari dagokionez) bermatuko duen memoria egin behar da (22.5).

Aipatutako eskakizunak, hiri lurzoruari dagozkio; eta proposatzen diren aldaketa guztiak Lurzoru Urbanizaezinari lotuak dira. Hori dela eta, ez da beharrezko kontsideratzen aipatutako ekonomia jasangarritasunari eta bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketak egitea.

Bestetik, 105/2008 dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, bere 31. artikuluan, Urbanizazio-jardunen eragina eta hirigintza-antolamenduko planei buruzko dokumentazioa arautzen duenean, honako dokumentazioa eskatzen die Ingurumen-eraginaren baterako ebaluzioari (egungo ingurumen ebaluazio estrategikoa)lotuta egon behar duten hirigintza plan guztiei:

> *e) Hirigintza-jardunaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlana.*
> *f ) Iraunkortasun ekonomikoaren memoria; bertan, hirigintza-jardunak beharrezkoak diren azpiegituren ezarpenak eta mantentzeak, edo emaitzazko zerbitzuak abian jartzeak eta emateak eraginpean hartutako ogasun publikoetan duen eragina haztatuko da bereziki, baita hirigintza-jardun horrek urbanizazioaren xede den lurzorua kendu ondoren produkzio-erabileretara zuzendutako lurzoruaren azaleran eta egokitzean duen eragina ere.*

Honakoa, AA.SS-en Aldaketa Puntual bat da, bakar-bakarrik titulartasun pribatuko lurzoruei eta ekimen pribatuko jarduketei eragiten diena, eta inolako eraginik ez duena Ogasun Publikoarengan, ez baitu inolako eraginik urbanizazioan, eta, ondorioz, ez ditu Administrazioak finantzatu beharreko azpiegitura-sare publikoak.

Hori dela eta, ez da beharrezkoa izango iraunkortasun ekonomikoaren txosten hori egitea.

Gainera, proposatutako aldaketa nagusiak lurzorua hobeto aprobetxatzeko dira Plan Orokorraren proposamenen bideragarritasun ekonomikoan eragin mesedegarria dutenak

## 10.- ALDAKETAK JASATEN DITUZTEN ARTIKULUEN ZERRENDA

Aurretik aipatu diren irizpide eta helburuak gauzatzeko beharrezko gertatzen da indarrean dauden Arau Subsidiarioetako Ordenantzetako honako artikuluak egokitzea:

ORDENANTZAK

**BIGARREN ATALA**

**2.2. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA**

-. 11. Artikulua. Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera.

11.2.D. Landa Guneak

D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak.

HIRUGARREN ATALA

**3.3. LUR HIRITARREZINAREN HIRIGINTZA ARAUBIDEA**

**3.3.1. LUR HIRITARREZINARI DAGOZKION OROTARIKO XEDAPENAK**

- 55. Artikulua. Lursailen gutxieneko erabilerarako neurriak.
- 60. Artikulua. Bestelako orotariko xedapenak

**3.3.3. ORORON LUR HIRITARREZINARI DAGOKION ARAUDIA**

- 66. Artikulua. Nekazaritza Ustiapena: Definizioa
- 67. Artikulua. Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea
- 69. Artikulua. Baserri berrien eraikuntza
- 71. Artikulua. Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapen trinkoak

**3.3.4. PAISAJEA ETA NEKAZARITZA BABESTEKO LUR HIRITARREZINEAN APLIKATZEKO ARAUAK.**

- 80. Artikulua.

Orendainen, 2019ko Azaroan

Sin.: Nikolas Barandiaran Contreras.- Arkitektoa

## 1. ERANSKINA: INDARREAN DAGOEN DOKUMENTAZIOA

- Ordenantzak: 11, 55, 60, 66, 67, 69, 71 eta 80. Artikuluak

*- Ordenanzas: Artículos 11, 55, 60, 66, 67, 69, 71 y 80*

## 11. artikulua. Eraikuntzari buruzko legeria eta orotariko erabilerarako gune ezberdinen erabilera.

(...)

**11.2.D. Landa Guneak.**

- D.20. Nekazaritza eta paisajea babesteko guneak.

Berez, gune horiek nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta babestu egin behar dira.

Nekazaritza eta paisajea dela eta garrantzi handikoak dira eta II.2 planoan ikus daitezke.

- Eraikuntzarako baldintzak:

Ezin da eraikin berririk gauzatu inola ere.

- Erabilerarako baldintzak:

*Erabilera lagunduak:

Nekazaritza jorratzeko erabilerak.
Ingurumena babestea eta berau hobetzea helburu duten erabilerak

*Erabilera onargarriak:

Abeltzaintzako erabilera zabalak.
Lurraldeko osagaien erabilera.
B motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoen erabilera.
Basoen erabilerari dagokionez, Aurretik Nekazaritza eta Paisajea babesteko lurretako Landaketei buruzko Plan Berezia onartu behar da eta bertan azaldutako baldintzak bete behar dira.

*Erabilera debekatuak:

Aurreko ataletan aipatu ez diren beste guztiak.

(...)

## 55. artikulua.Lursailen gutxieneko erabilerarako neurriak.

Gutxieneko lursailak, bere erabileraren arabera, neurri hauek izango ditu:

- 50.000 m² (5 Ha): Nekazaritzako ustiapena arruntak.
- 50.000 m² (5 Ha): Jarduera erauzleak.
- 50.000 m² (5 Ha): Gizarte eta jendearentzako instalazio eta eraikinak.
- 10.000 m² (1 Ha): Jada bertan dauden eraikinetako etxebizitza autonomoak
- 5.000 m²: Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapena trinkoak.

- 5.000 m²: Lurraldearen ustiapenarekin loturarik gabeko nekazaritza industria (zerrategiak, haztegiak).
- 2.500 m²: Nekazaritzako unitate bereziak (berotegiak).
- 2.500 m²: Profesionalak ez diren nekazaritza jarduerak (baratzeak).

## 60. artikulua.Bestelako orotariko xedapenak.

Udalak Lur Hiritarrezinean eraiki behar diren eraikin eta instalazioetarako Egitamu Berezia onartu beharra dagoela erabaki dezake, eraikin eta instalazio horiek gizarte intereserako edo erabilpen publikokoak direnean.

Era berean, Egitamu Berezia onartua izatea eska daiteke paisajea, ingurumena edo babes berezia eskatzen duen beste edozein gunek izan ditzakeen baloreak defendatzeko beharrezkoa balitz.

Debekatzen da zaborrak edo obra hondakinak botatzea, legearen araberako zabortegietan izan ezik.

Gune irekietan sua egitea debekatzen da, aisialdia, abeltzaintza eta baso ustiapenekin lotutako ekintzei dagokien salbuespenak izan ezik eta erakunde eskudunak hala onartzen badu.

Sute bat gertatu ondoren, ezin izango da inolaz ere lurraren erabilera aldatu, aurretik zuhaitzik gabe zeuden lursailak oihaneztapena izan ezik.

## 66. artikulua. Nekazaritza ustiapena: Definizioa.

1. Nekazaritza ustiapena eta nekazaria (nekazaritza ustiapenaren jabea) kontzeptuak honako hauen arabera mugatuko dira: Uztailaren 4ko 19/1995 Nekazaritza Ustiapenen Modernizazioari buruzko Legearen 2. artikulua; eta uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuaren 2.1.1. eta 2.1.2. artikuluak. Azken horien bidez Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lehentasunezko Nekazaritza Ustiapenak arautzen dira eta EAE ko Lurralde Historiko ezberdinetan nekazaritzan aritzeko lursailen gutxieneko neurriak finkatzen dira.

Horrela, nekazaritza ustiapena zera izango da, jabeek nekazaritza ekoizpenerako enpresa gisa antolatutako eskubide eta ondareen multzoa. Xede nagusia merkatu mailan etekinak erdiestea litzateke. Aldi berean, nekazaritza ustiapenak teknologia eta ekonomia mailan batasuna agertu behar du eta ekoizpenerako baliabide berdinak erabili behar ditu. Kudeaketa ere bakarra izan behar du.

2. Honako jarduera hauek nekazaritza jardueratzat joko dira:

- Nekazaritzako jarduerak, hauek barne: Lorezaintza, perretxikogintza, haztegiak eta laborantza hidroponikoak.
- Basozaintzako jarduerak. Honako hauek sartzen dira sail honetan: Egurgintza, baso haziak edo fruituak eta landareak biltzea edo/eta lantzea eta mendiaren magalean burutzen diren erauzketa lanak, meategi eta ur zuzkidurarekin lotutakoak izan ezik.
- Abeltzaintzako jarduerak. Esaterako, hegazti hazkuntza, untxi hazkuntza, erlezaintza eta espezie zinegetikoak landu, edo larrugintzarako animaliak hazi, edo egun bakarreko oiloak sortzeko arrautzak inkubatzen dituzten landetxeak.

3. Ez dira nekazaritza ustiapentzat jotzen:

- Nekazaritza enpresa laguntzaileak. Lurrik ez dute, baina nekazaritza ekoizpenari laguntza luzatzen diote tresnak utziz, edozein dela ere kontratuaren izaera, edo halako ustiapenek behar izaten dituzten zerbitzuak eskainiz.
- Zalditegiak, lasterketarako edo ibiltzeko zaldiak direla ere. Bertan zaldiak hazi egiten badituzte, onartuko dira.
- Gurdi edo lanerako abeltzaintza. Bertan abereak hazi egiten badituzte, onartuko dira.
- Zakurtegiak, animalien salerosketarako guneak, hiltegiak eta antzekoak.
- Edozein eratako parke zoologikoren ustiapena, animaliak aske edo kaiolatan badira ere, eta animali erakusketak.
- Lagunarteko abereak hazteko etxeak.
- Arrain haztegiak eta itsas laboreak.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Nekazaritza Sailak baserri bateko baso, abere edo nekazaritza jarduera Gipuzkoako Kondaira Lurraldeko Nekazaritza Ustiapenen Erroldaritzan izena eman duen ziurtatuko du, baserri hori legez nekazaritza ustiapenatzat jo dezaten.

## 67. artikulua.Egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea.

Baserrien eraberritzeak eta birgaitzeak lehentasun osoa izango dute bertako landa eraikinarekin lotutako lanak burutzean.

1. Oro har, baserriak eraberritzean eta birgaitzean horien ezaugarri nagusiak errespetatu egin beharko dira.

2. Kanpoko osagaiei dagozkien lanak.

Kanpo aldean baserriak jatorriz zuen itxura mantenduz burutuko dira, hau da, bolumenak, estalkiak, hegalkinak, etxaurreko baoak, eta abar.

Eraikinean aurki daitezkeen balio bereziko osagai arkitektoniko edo artistiko guztiak mantenduko dira, esaterako, armarriak, ateburuak, etxaurrearen egituraketa, eta abar.

Kanpoko materialek arau hauetako 49. artikuluak xedatutakoa bete beharko dute. Kanpoko zenbait osagai alda daitezke, hots, arotzeria, estalkia, eta abar. Baina jatorriz baserriak zituen osagai bereizgarriak eta egituraketa nagusia mantendu behar izango dira.

3. Baserriaren birgaitze osoa burutzean ondoko txabolak eta estalgarriak kendu egingo dira, eraikinaren funtzionaltasuna hobetzearren, nekazaritza ustiapena eta horren kanpoko itxura kontuan hartuz.

4. Etxebizitzen gehienezko kopurua.

Eraberritutako baserriak gehienez jota 4 etxebizitza izan ditzake, eta behin horiek gauzatu ostean, horien izena Jabegoaren Erroldan aurkeztu beharko da nekazaritzako ustiapenari erantsitako eraikin gisa, edo horri itsatsia, betiere honako irizpide hauen arabera jokatuz:

- Baimendutako etxebizitzen gehienezko kopurua: 4 etxe.

- Etxebizitza bakoitzean gutxienezko eraikitako azalera: 150 m2(a).

Kopuru horiek zehazterakoan ez dira aintzat hartuko eraikin berean dauden etxebizitzak, baina erroldan ustiapen horrekin lotuta ez daudela agertzen den kasuetan.

5.Jatorrizko baserria handitzeko lan bereziak.

Birgaitzearekin lotuta egonez gero, baserria handitzeko lanak burutu ahal izango dira, baldin eta eraikuntza berria baserriari itsatsita gelditzen bada eta jatorrizko eraikinaren ezaugarriekin bat badator. Erantsitako eraikuntzen gehienezko azalerak, gehi jada bertan dugun azalera, ezin izango du 300 m2 (a) baino gehiago izan.

## 69. artikulua. Baserri berrien eraikuntza.

1. Udalak, lanak gauzatzeko baimenari buruzko erabakia hartu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren halabeharrezko txostena eskatuko du.

2. Gutxieneko lursaila. Laborantza ustiapena berria gauzatzeko lursailak gutxienez bost hektarea (5 Ha.) izan beharko ditu, baso, abere eta nekazaritza ustiapenei dagokienez. Dena den, Gipuzkoako Foru Aldundiak, zioak azalduz, aipatutako azalera handiagoa edo txikiagoa muga dezake aurkeztutako ustiapenaren ekoizpenaren bideragarritasuna eta baldintza ekonomikoak aintzat hartuz.

Ez da beharrezkoa lur azalera osoa lursail bakar batean bilduta egotea, baina kasu guztietan, eraikina duen lursailaren gutxieneko azalera 3.000 $m^2$ koa izango da.

3.Gehienezko etxebizitza kopurua.

Ustiapenan edo baserrian gehienez jota bi (2) etxebizitza gauza daitezke. Hori eraiki ondoren, Jabego Erroldaritzan izena eman beharko dute, ustiapenari uztartuta eta horrekiko inolako bereizketarik ez duela adieraziz.

4.Eraikuntza berriko oin bakoitzaren gehienezko erabilera.

Eraikuntza berrian, oin bakoitzari dagokionez, erabil daitekeen gutxieneko eta gehienezko azalerak honako hauek dira: 150 $m^2$ eta 300 $m^2$.

5.Mugetarako tarteak.

Eraikuntza berria eta instalazio osagarriak lursailaren mugetatik zortzi (8) metrotara ezarriko dira gutxienez.

6.Gehienezko altuera eta oin kopurua.

Eraikinak gehienez jota 2 solairu izango ditu sestratik gora (Beheko solairua, lehenengo solairua), soto edo erdisotoa ere gauza daitekeelarik, baita estalpean gerta daitezkeen guneak erabili ere.

Eraikuntza berriaren gehienezko altuera 7,5 metrokoa izango da hegalkin horizontaletan eta 9,5 metrokoa goihabeetan, biak ere inguruko lurra eta eraikuntzaren artean tarte gehien dagoen tokian neurtuak. Udalak behar den bezala justifikatu ostean (aldapa handiko lurrak) neurri horiek handi ditzake.

## 71. artikulua.Landetxeak eta abeltzaintzako ustiapena trinkoak.

Abeltzaintzako ustiapena eta landetxeen eraikuntzak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Gutxieneko lursaila: 5.000 $m^2$ onibar bakar batean.

b) Azalerari dagokionez, gehienez jota 1.500 $m^2$ erabiliko dira nekazari batek baino gehiagok osatutako elkarteen eta kooperatiben kasuan. Pertsona bakar baten kasuan, gehienez jota azaleraren 1.000 $m^2$ erabili ahal izango ditu.

